



DONOSTIAKO HIRITARREN EKIMEN ONENA SARITZEKO
GIZARTE KONTSEILUAREN 2022KO SARIA

- 1.- Donostiako Gizarte Kontseiluak, **hiritarrei eragiten dien edozein alorretako ekimenak saritzeko asmoz**, Gizarte Kontseiluaren Saria sortu du. Alor horien artean daude hiriarentzako lehentasunezko gaiak (Adinekoak, Belaunaldi aldaketa, Inmigrazioa eta donostiar berriak, Klima-aldaketa eta Auzoak).
- 2.- Saria urtero banatuko da eta egiaztagiri bat izango da.
- 3.- Pertsona fisikoek, instituzioek zein antolakundeek garatutako ekimenak izan daitezke, eta Gizarte Kontseiluko Batzorde Iraunkorreko kide ez direnek ere bertan parte hartzeko aukera izango dute.
- 4.- Proposamenak 2022ko ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira. Saria azaroan banatuko da.
- 5.- Proposamenak aurkezteko, informazio hau eskaini beharko da: ekimenaren helburua, emaitzak eta ondorioak. Gehienez ere 40 lerro izango ditu (orrialde bat). Proposamena posta elektronikoz bidali beharko da Donostiako 2030 Estrategia Bulegora: estrategia@donostiafutura.net.
- 6.- Epaimahaiak informazio osagarria eskatu ahal izango du.
- 7.- Epaimahaia Batzorde Iraukorrak osatuko du, eta meritu handiena duen ekimena proposatuko dio Gizarte Kontseiluari.

Donostia, 2022ko maiatzaren 9a